



KUTXABANKEN BERDINTASUN POLITIKA

Aukera berdintasunarekin duen konpromisoa bermatzeko eta zabaltzeko **Kutxabankek** hartu dituen **printzipioak eta konpromisoak** islatzen ditu dokumentu honek. Dagoeneko, aipatutako printzipio eta konpromiso horiek jasota zeuden bere Enpresa Gizarte Erantzukizuna Politikaren "baloreetan".

Honako **printzipio hauetan** oinarritzen da **Kutxabanken** konpromisoa:

- **Pertsonenganako errespetuan**, aukera berdintasunean, duintasunean eta osotasunean oinarritutako lan harremanak sustatzea.
- **Aukera berdintasun printzipioa** eta emakumeen eta gizonen **tratu berdintasun printzipioa**, zehar-lerroz, **Kutxabank** osoan, integratu dadin eta erakundeak barnera dezan aurrerapausoak ematea.
- Pertsonen kudeaketan, **genero ikuspegiaren integrazioa sustatzea**, emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna berma dezaten langileria osoan.
- **Bizitza profesionala eta pertsonala** uztartzeko neurriak bultzatzea.
- **Tolerantzia zero** laneko jazarpenaren edo bortizkeriaren edozein zantzuren aurrean.
- **Jarrera proaktiboa** izatea, **Kutxabanken** interes-taldeei filosofia ez-sexista hedatzeko, transmititzeko eta arlo horretan sentsibilizatzeko: langileak, bezeroak, hornitzaileak, akziodunak eta gizartea (elkarteak, erakundeak, eta abar), baita, gizonen eta emakumeen aukera berdintasunaren arloan, erreferentzia erakundeekin dugun elkarlanari eustea ere.

Horretarako, eta indarrean dagoen araudiari jarraiki, eremu honetako etengabeko hobekuntzarako beharrezko baliabideak jartzeko konpromisoa hartu du **Kutxabankek**. Horretarako, **Berdintasun Plana** definitu eta ezarriko du. Plan horrek ezarritako printzipio eta helburu guztiak jasoko ditu, burutu daitezten.

2014ko martxoa